

Ze barri?

1999
MARTXOA

ESKORIATZA eta GATZAGAko HILABETEKARIA


29 zkia.

Urlatik Landetara

Eskoriatzarrak munduan:
Fermin Lezeta Hegoameriketan

Elkarrizketa:
Karmele Agirregabiria.

Aitzorrotzen zuhaitz
landaketak.



**Ganuzak, historiatik
etorkizunera begira**

A&B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGURUAK**

ALDETEC



-----**TASAZIOAK**
-----**PERITAZIOAK**
-----**PROIEKTU ING.**
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**
-----**ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.:908-774133 Tel.-Fax 715436 **20540 ESKORIATZA**

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



*fundazioa
fundación*

BEIRALAN



- ◆ **Komunerako altzari eta manparak**
- ◆ **Ispiludun armairu aurrealdeak**
- ◆ **Beirate artistikoak**
- ◆ **Salarako mahaia**

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78
ARETXABALETA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

E. MAZMELA

**HORTZ
KLINIKA**

Tel. 943 71 47 36



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327
ESKORIATZA

**Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.**

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.**

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**



Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 **ESKORIATZA** (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxes: 34-43 - 714061

**HEMEN ZURE KOLORETAKO
PUBLIZITATEA**

GANUZA ETXIA

LEHEN OIN ETA GERO.

Euki doun azkenengo barrietaiko bat izen da gaurko egunien Ganuza etxe moruen ezauketan douna Jose Arana ikastoliak erosi dauela.

Notizia pozgarrixa eskoitzar, eta aldi batez, euskalzale sentiruten garen danondako, inungo dudaik barik. Itxuria danez, azkenaldi hontan, herrixen zerbait izen dien etxe haundi danak kulturali dedikaturako aktibidadietara zuzenduta doiezela emuten dau, eta ideia eztau bape gaixki. Aspalditxo ja, Hidalga etxi az hasi zan hau tendentziau, kultura etxe bihurtu zani, eta azken denporetan San Biatarren kanbixua ikusteko okasinua euki dou Mondraueko Unibersidadeko kanpuseko parte baten bihurtuta, eta azkena, Ganuza etxia.

Baina, zer izen da Ganuza etxia?. Honen etxionen berezko izena Gaztainadi izen zan Hau

etxiau Apotzako Gaztaini baserrikuena zan, eta seguru asko, honeik, beste askok moruen, etxia eukien kalien denporalditxo bat pasetako. Honek gure dau esan sasu hartan be, hal euienak, bakazinuak eta etxiak eukitzezi-ttuela beste toki batzuetan.



Geruau, erresidentzia fijauta geratu ei zan bertan. Edifizio erretangularra da, lau uren teilatua aieketajakonaz, XVIII. Gizaldiko oso propixua. Gerra zibileko kontsekuentziakatik ezertarako be geratu etzana eta gure denporetan zator zulo moruko bat izeteko besteik balixo izen eztauen.

Barrez, oin Ikastoliak erosi ei dau, ikastola eta guarderixia izen dain, eta hasieran esaten nauen moruen, hori pozgarrixa izen biheko litzake bere burua eskoitzar eta euskalzale sentiruten dauen erozeinendako, herriko seme moruen, alperrik galduta euen etxe baten rehabilitazinua dakarrelako, eta euskalzale moruen, ikastoliendako dalako, horrek suponiruten dauenaz. Oin biurte, 25. Anibersaixua zelebrau gauenetik, sometan hasi gitzen kanbixua, badator apurka-apurka, ikastoliak azkenengo urtietan hartu dauen pro-tagonismua haundiketana fan dalako. Hor daz, esate baterako, idako urte biokaz egon dan ferixia. Aurrera goiez, hortaz eztau dudaik. Zorionak eta segi aurrera!

D.M.III.na.



ESKORIATZA

ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA
 Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez, Monika Belastegi.
 Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.
 Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
 Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856
 "ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz
 lagundutako aldizkaria
 Euskara Batzordea



2.850 ZUHAITZ LANDATUKO DIRA AITZORROTZ INGURUAN

Hasi dira jadanik basomutilak fin-fin zuhaitzak landatzen



Ezkerreko argazkian, Aitzorrotzeko iturritik Uxar aldera landatu dira dagoeneko zuhaitz batzuk. Eskineko argazkian, Juanpe Axpe zuhaitz batzuekin ikus daiteke hauek landatzeko prest.

Aurreko hileko Ze Barri?n aurreratu genuen bezela, Aitzorrotzeko zonaldea berreskuratzeko planarekin aurrera darrai herriko udalak, eta 2.850 zuhaitz jarri ahal izateko lurra ongi prestatu ondoren, pasa den hileko azken astean landaketei ekin zitzaizen.

Jabi "Agarre" eta Juan Pedro "Axpe" ren ardurapean, dozena erdi lagun ari dira Aitzorrotz ingurua zuhaitzez josi eta txukun lagatzeko ahalaeginetan. Eta

hauek lana gogotik eginaz txukun asko utziko digute Aitzorrotz. Orain arte, pagoak izan dira landatutako zuhaitzik gehienak, 750 guztira, eta lursail osoa osatzeko; astigarrak, pinu beltz eta gorriak, makalak... eta beste zenbait zuhaitz mota landatu ziren. 250 ale mota bakoitzeko.

Aitzorrotzen baino lehenago, herriko ikastetxeetako ikasleak izan ziren lanean fin aritu zirenak, eta Martxoaren 18an "Zuhaitz Eguna"

ospatuz, 30 zuhar eta gaztainondo landatu zituzten Eskoriatzako hainbat lekutan.

Udalak jarri zituen horretarako behar ziren landareak eta arratsaldean, Arrasate eta Aretxaba-letan egin zen bezela, Phanta Rey antzerki taldeak kutsadura eta birziklapenari buruzko antzezlan interesgarria eskeini zuen plazan. Errepikatuzeko moduko jaieguna izan zuten, beraz, herriko ikasleek.

Eskoriatzarrak Sierra Nevadan eskiatzen

Primeran! Horixe da Andaluzia aldera joandako gehienon iritzia.

Bidaia luzea aurrikusten zen baina geneukan gidari finarekin, Alex, laburra eta atsegina egin zitzaigun. Ostiraleko egunsentiak autobusean harrapatu gintuen, goizeko 10:30ean ailegatu baikinena Sierra Nevadara. Forfaits-ak hartzea odisea bat bilakatu zen, baina lortu ostean guztiok pistetara igo eta norberak bere eski gaineko abilezia luzitu ahal izan zuen.

Pistak oso ondo zeuden, 35 km zabalik, eta eguraldia primerakoa. Mediteraneoko eguzkiak kaskarra majo berotu zigun eta oraindik ere gure aurpegi beltzaranak luzitzen ari gara. Egun osoko nekea arintzeko hotela Granada erdian geneukan,

baina, behin haraino joanda, eta mamboko gunean egonik, bertako gau giroa ezagutu gabe ezin gelditu eta... parrandarik bota zuen bat baino gehiagok.



MARTXOA, MOBILIZAZIOZ BETETAKO HILABETEA

Euskal Herrian bizi ditugun egun nahasiek beren islada izan dute geure herrian. Hilabete honetan, eta *Presoen Euskal Herriratzea* eskatuz, hiru kontzentrazio egin dira herriko plazan. Horrezaz gainera, herriko ikastetxeetan ere, aldarikapen bera eginez ikasleek ekimen ezberdinak antolatu dituzte.

Martxoaren 11an, adibidez, Almeneko DBH ikasleek eta baita Irakasle Eskolakoek ere, itxialdia edo entzerrona eguna antolatu zuten euren ikastetxeetan. Tokatzen zitzairen atsedendietan ere beraien ikasgeletan egon ziren, eta arratsaldeak, berriz, gartzelako egoerari buruzko ikusentzunezkoak ikusi, mahai inguruak egin eta euskal presoei zuzendutako gutunak idazten aritu ziren.

Irakasle Eskolako 60 bat ikasleek, gaua eskolan pasa zuten, eta Almenekoek, berriz, Ederlan aurreko zelaiak "oku-patu" zituzten kanpinekin eta kanparta adierazgarriekin. Gau epela izan zuten bertan bildu ziren 35 gazteek, eta gustora aritu ziren trenbideko pasealekuan kantuan eta solasean.



Martxoan zehar izandako mobilizazioen adibide dira bi argazki hauek. Goikoan, Ederlan parean ikasleek egindako akanpada. Alboan, trenbidean giro onean afaltzen eta kitarra jotzen.

Clemente Beloki, industrialdeko gerente.

Z E B A R R I ? ko irakurle fin zaretenok gogoratuko duzuen bezela, orain hilabete batzuk dela (Z E B A R R I ? hilebetekaria zuri beltzean eta zortzi orrialdekoa zen garai hartan), Eskoriatzako udalak Ederlan parean dauden lursailetan eraiki nahi den industrialdeari buruzko erreportai zabala eskaini genizuen. Udalaren asmoa indusrialde hau aurten eraikitzen hastea litzateke, eta hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zitzaion proiektuaren plan partziala.

Industrialde ezberdina izango da eraiki nahi den hau, Zamudioko parke teknologikoa bezain bestekoa ez, baina, "Ekintza Berritzaileen Parke" hau berezia izango da benetan. Berau injenerutza eta bestelako zerbitzu berriei zuzendua egotea nahi da, enpresa txikiez

aparte. Itxuraz ere, zonalde berde ugari egin nahi da bertan.


Bertan kokatzea nahiko luketen enpresek ere badaukate norengana jo pasa den urte bukaeran "Zubizarreta auditores" enpresak egindako lehiaketaren ondoren.

"Ekintza Berritzaileen Parke" hau berezia izango da benetan, eta injenerutza eta zerbitzu berriei zuzenduta egotea nahi da

Eskoriatzar bat, hain zuzen ere, Clemente Beloki izendatu baitu udalak industrialde berriko gerente posturako. Gorosarri enparantzaren inguruko etxaberen batean

ere, bulegoa irekiko da laster, industrialde berri honetan parte hartzeko interesa lukeen edomor hobeto atenditu ahal izateko.

Industrialdea antzinako bainuetxea zegoen orubean kokatuko da



Gastañaduy, historiadun etxea umeentzako ikasgela

Gaur egun Ganuza izenarekin ezagutzen badugu ere, jatorriz Gastañaduy izena du Gizabidea Fundazioak erosi berri duen etxe honek. Historia handiko etxea da berau Gastañaduy familiak bai Eskoriatza baita bailarako historian ere izan duen eraginagatik zenbait mendetan zehar. Aipagarria da beste gauza batzuren artean XX. mendean bertako alaba, Maria Josefa Ganuza, eta Telesforo

Monzonen arteko ezkontza. Gizabideak, Jose Arana Almen ikastolaren beste egoitza bat jarriko du bertan, zerotik sei urte bitarteko haurrentzako hain zuzen ere. Etxe honek, duen historia luzeari atal berri bat gehituko zaio. Orain arte bizi izan dituenak ezezagunak dira eskoriatzar askorentzat, eta erreportai honekin, Gastañaduy etxea eta bertan bizi izan direnak ezagutzera eman nahi dizkizuegu.

Apotzaga elizatekoa zen Gastañaduy familiak bi etxe zituen XVIII. mende inguruan Eskoriatzan. Elizatean bertan bata, eta gaur egun Ganuza izenez ezagutzen dena bestea. Bizitoki gisa Apotzagakoa erabiltzen zuten bitartean, kalekoa denboralditxoak igarotzeko erabiltzen zuten.

1730. urte inguruan, sute baten ondorioz, Apotzagako etxea guztiz erre zen eta Gastañaduytarrek kaleko etxera jaistea erabaki zuten.

1750. urte aldera, etxean apainketa eta hornitze lanak egin zituzten etxea erosoagoa eta lujosoagoa egiteko. Izan ere, Madrilen igarotzen zituzten neguetan, politika eta aristokrazia munduko pertsonaiekin harremandu ziren, eta hauek Zestoa edota Gesalibarko bainuetxeetara etortzen zirenean, Gastañaduytarren etxean pasatzen zituzten udako egun batzuk.



Telesforo Monzon, Maria Josefa Ganuzarekin, Gastañaduy etxeko alabarekin ezkondu zen eguneko argazki honetan, ezkonberriak familiarekin jendea agurtzen..

1775. urte aldera, galeria egin zen. Atzeko aldera begiratzen duen galeria hain zuen ere. Galeria honek 20 metro luze ditu eta 3 metro zabal, goiko

argazkian ikusi daitekeena.

Arte lan baliotsuak

Hornikuntza hauei lotuta, egongeletan jarritako paper pintatua ere aipatu behar da, adituen ustetan oso baliotsua. Gaur egun oraindik, nahiz eta egoera nahiko kaskarrean, ikusi daitezke egongela nagusiko paretetan *Monuments de Paris* gaiaren inguruko irudiak. Egongela txikiri dagokionez, bertako pinturak are baliotsuagoak dira. Honen izenburua, *La caza en Compiègne* da eta bertan, ehizako bost eszena deskribatzen dira: ehizarako abialdia, ehiztariak oreinaren atzetik, ibaia zeharkatzea eta ehiza osteko bazkaria.

Aipatu beharra dago, maisulan honek Zuloaga bera ere txunditu zuela eta askotan hurbildu da Eskoriatzara pintura hauek ikustera.



Hau da gaur egun Gastañaduy etxeak agertzen duen aurpegia. Izan ere, urteetan zehar itxita egon da.

Eskuineko argazkian, Maria Josefa Ganuza eta Telesforo Monzon ezkonberriak elizatik atertzen ikusi ahal ditugu. Lurrean alfonbra gorria jarri zieten Gastañaduy etxetik eleiza atariraino zihoana, eta alde bakoitzean, sagarrondo ilada loretan. Beheko argazkian, ezkontza eguneko bazkaria ikusi daiteke. paretetan ikusten den parper pintatua arte lana dela diote adituek, eta oraindik ere ikusi daiteke etxeko paretetan nahiz eta egoera txarrean egon.



Munduan paper pintatu honetako bost segida baino ez dira ezagutzen, izan ere, XVIII. mendeko paper hau Napoleonen inperioaren erorketara arte baino ez baitzen egin.

Hospitala Gerra Zibilean

Gerra Zibileko garaian, 1937. urtean, armadak Gastañaduy etxea hartu zuen bertan hospitala jartzeko. Garai honetan

etxea Gastañaduytarrena izatetik Ganuza familiaren ondasun izatera pasatuta zegoen. Ziur jakiterik izan ez dugun arren, badirudi Gastañaduy eta Ganuza familiek loturaren bat zutela eta oso posible da Ganuzatarrek herentziaz jaso izana.

Egia esan, etxe honi buruzko dolumentu askorik ez dago, izan ere, gerra garaian hauetako asko desagertu egin baitziren.

Pertsonaia esanguratsuak

Gastañaduy familiak pertsonaia aipagarriak izan ditu, eta gizonezkoetako batzuk nabarmendu egin ziren koroari eskainitako zerbitzuagatik.. Horien artean, Iñigo de Gastañaduy eta Juan Francisco de Gastañaduy y Uriarte aurki ditzakegu. Lehenengoak Gran Capitan ezizena zuen Gonzalo Fernandez de Cordobaren gidaritzapean Napoles hiria hartu zuen eta Juan Francisco de Gastañaduy y Uriarte Peruko hainbat probintziatako kapitain generala izatera heldu zen. horrez gain, Iñigo de Gastañaduy y Lakitegi Filipinasen mandatari aritu zen eta azkenik Prudencio de Gastañaduy y Zamora dugu, Alcantarako Zaldun izan zena.

Gastañaduy familiako azken partaideek ez zuten oinordekorik izan, ondorioz, Vicente de Ganuza, Doña Paula Rivasen ilobari utzi zion honek Gastañaduy etxea, Ganuzatarren sendia etxeaz jabetuz.

Hori dela eta, ezagutzen dugu gaur egun Ganuza izenarekin Gastañaduytarren etxea

Eskuin aldeko argazkian, egongela nagusiko egoera zein den ikusi daiteke. beheko argazkian, sukaldariak ezkontza eguneko bazkaria prestatzen ari dira eta azpiko aldekoan sukaldea gaur egungo nola dagoen ikusten da.



Monzon eta Ganuza

Behin etxea Ganuzatarrena izatera pasatu ostean, nahiz eta hauen jatorrizko etxea Nafarroan, Bargotan, izan, bizitoki gisa Eskoriatza aukeratu zuten, eta Guda Zibila hasi artean bertan bizi izan ziren.

Bertako alaba bat, maria Josefa ganuza, Bergarako Telesforo Monzonekin ezkondu zen. ezkontza hau Eskoriatzan izan zen, eta erreportaian zehar dauden antzinako argazki guztiak hauen ezkontza egunekoak dira.

Maria Josefa de Ganuzak esandakoaren arabera, nahiz eta bergarako olaso dorrera ezkondu, uda guztiak Eskoriatzan igarotzen

zizuten senar-emazteek guda iritsi artean. Gudarekin batera atzerrira joan behar izan baitzuten.

Eskola eta haurtzaindegia

Etxea azken urteotan itxita egon da eta hainbat lapurreta izan


ostean nahiko egoera kaskarrean gelditu da. Honegatik guztiagatik eta beste erabilera hobetik eman ezin zitzaizolako Maria Eugenia Ganuzaren hitzetan, oso pozik saldu diote Gizabide Fundazioari etxea; herriarentzako onuragarri izango delakoan.

Gizabide Fundazioak (kooperatiba elkarteek hezkuntzaren beharrei erantzuteko fundazioak), etxea eraberritzeko asmoa dauka eta bertan egun haurren eskolak eskaintzen duen 2-6 urte bitarteko heziketaz gain 0-2 urtekoentzat haurtzaindegia jartzeko asmoa ere badu. haurtzaindegiaren proiektu hau duela hiru urte sortu zen Arana Almen ikastolan eta eraberritze lan guztiak amaitu ostean, 2.001 urteko ikasturteari egoitza berrian ekitea espero da, urteetan itxita egon den etxeari erabilera ezinhobea emanaz.



Fermin Lezeta

Patagoniako izotzetatik Brasilgo ohian tropikaletaraino



Aldizkariaren itxura aldaketarekin batera, tarte berriak ekarri genituen Ze Barrira. "Eskoriatzarrok Munduan" izeneko hau, orain bi hilabete dela Nepali buruzko erreportai batekin ireki genuen, gure herriko bidaiariek beste lurralde batzuetan izandako bizipenak jaso asmoz. Ale honetan, Fermin Lezeta basozaina gonbidatu dugu geurera, orain urtebete dela Hegoamerikan egindako bidaia gogoratzeko. Hura ez zen Ferminek putzua zeharkatu zuen lehen aldia izan, lehenago Iparralderago ibilia bait zen, Canada, Estatu Batuak, Nicaragua, Colombia, Ecuador eta Perun; eta Asia aldean ere ibilia dugu, Nepal, Thailandia eta Txinan, esate baterako. 98ko Urtarrilean hasi eta sei hilabetez, Txile, Argentina, Bolivia eta Brasil bisitatu zituen basozainak, Lurreko punturik hegoaldekoenean dauden izotzetan hasi, eta Brasilgo ohian epeletan bukatuz.

"Bidai bat egitea altxortxo bat edukitzea bezala da" esan zigun Ferminek bere azken abenturari buruz hitzegiten hasi ginenean; *"Mundua txikitu egin da, eta aukera onak daude leku berriak ezagutu ahal izateko"*.

Eta Hegoamerikara jo zuen gure basozainak jende, paisai eta bizimodu ezberdinen bila. Txile eta Argentina lurrean Euskal Herriak duen latitude berean, baina Hego Hemisferioan dauden bi lurralde dira, klima eta berezitasun antzekoekin, baina era berean fauna eta flora oso ezberdinekin.

Hala ere, munduko azken muturreraino jo zuen lehendabizi bere bidaia hasteko, Santiago de Chile atzean hutzi eta "Errepide Australa" deiotzen dioten pista jarraituz, Punta Arenasen hegazkina hartu eta Izotzezko Plaka Kontinental izugarriaren (500Km luze) gainetik pasatu ziren Iruñeako beste lagun batzuekin batera, Patagoniaren bihotzera, Torres del Paine Natur Parkera joateko. Bertan zortzi eguneko ibilaldi bat egin zuen, eta beste bat Chanteleko Natur Parkean ere, Cerro Torre eta Fitz Roy mendien famatuen itzalpean. Egunez, paisai eta faunak

eskaintzen zuenaz gozaten, eta gaudetan, bidean gelditu, matea edan eta bidelagun zituenekin solasean.

Bakarrik egin zuen bidaia, beti autoestopez edo autobusez mugituz, eta kanpinetan edo gonbidatzen zuten bertako jendearen etxeetan lo eginaz. *"Orain beste modu batera egingo nuke bidaia hau"* esan zigun Ferminek *"distantzia oso handiak dira hangoak, eta beti autoestopez ibiltzea oso neke-tsua egiten da. Orain*

automobil bat lortzen saiatuko nintzateke". Denbora asko pasatu zuen alde batetik bestera bueltaka, eta leku batean lasai egotea ere nahi izango zukeen Ferminek. *"ONG batekin harremanetan jarri eta lan pixka bat egitea ere modu ona da leku konkretu bat ongi ezagutu eta hilabete pare batez bertan egoteko"*. Calafatera jo zuen gero, Perito Moreno glaziar famatua itsasoan nola barneratzen den ikusteko. Bertatik, Argentinara bidea



Bere bidaian zehar pampako biztanleekin harreman estua izan du Ferminek. Argazkian, nekazari batzuen etxeko behiak jeisten ari da fin-fin.



Uyuniko salarra Atacamako desertuan. (Chile) Gatzeko eremu zabal honetan etxeen adreiluak ere gatzek eginda daude. Bertatik, Boliviako muga zeharkatu zuen Ferminek.

hartuz, oinez Puerto Natalesetik irten eta izotzeko plaka kontinental zeharkatuz mugaren bila joan zen, baina bertan behera gelditu zen bere asmoa, ez bait zioten zeharkatzen utzi. Futalefú izan zen bere hurrengo jomuga. Bertako erreka eta mendien indarra mundu osoko piraguiesten Meca da, eta euskaldun batzuekin egin zuen topo, Joxe Mari bilbotarra eta Edu bere lagunarekin. Bera ere kayakean ibiltzera animatu zen, zaldian baita ere, eta oinez, "Parque Natural de Los Alerces" deitutakoan. Gero San Carlos de Barilochera joan zen, sumendien bila.

BOLIVIARA BIDEAN

Euskal Herritik irtetean, hemendik joan eta Txile eta Argentinan bizimodua egin duten euskaldunekin egotea nahi zuen Ferminek, eta sumendietan zehar txangoak egiten zituen bitartean, burugogor fama daukagula jakin zuen; txisteak ere ba omen dituzte Pampako biztanleek euskaldunen burugogorkeriari buruz; "porfiado"ak omen gara. Mendiako erreka eta freskotasunetik, munduan dagoen lekurik hilebe-tako batera jo zuen, Atacamako desertura, gatzeko eremuak kilometrotan luzatzen diren lekura. Lurrean dagoen gatzetan zulobat eginez gero, ura irtetzen omen da kanpora, denbora gutxian zuritu eta kristal bihurtzen dena. Bertatik todoterrenoak hartu eta Boliviako muga zeharkatu zuen gure basozainak, Titicaca lakura joateko. Aspaldian zorretan zuen bixita egin zion Carmelo bere lagun oreretarrari. Hamabost urte dela bertara


joan zen frantziskotar hau lakuaren ertzean dagoen Copacabanako Santutegira, eta aspaldiko partez ezagun batekin zegoela aprobetxatuaz, hilabete t'erdiz egon zen han, betidanik quechua eta aimara etnien bizileku izan den laku sakratuaren ertzean. 3.800 metrotara dago Titicaca, baina askoz gorago igo zen bera, Jancoma mendira, 6.427 metrotara. Carmelori agur esanda Machu Pichu bixitatu zuen, eta gero Lomeriora joan zen, Mari Carmen Fernandez eskoriatzarra eta beste hainbat lagunek GKE baten bitartez garatzen ari diren proiektua ezagutzera.

MENDIETATIK OIHANERA

Lomerio da Boliviak oihanarekin mugan duen azken herria, paraje aberatsa oso, landare eta animalia basatiz betea, eta coca landarea erruz jaiotzen den tokia. Landare honetatik ateratzen den pasta eginaz bizi da bertako jende asko, nekazaritza, kautxoaren bilketa edo eta oihaneko piztien (caimanak,

guacamayoak) trafikoa baina errentagariagoa dela ikusita. Oihanean sartu, eta Huanchacako mesetara ere joan zen Fermin, bere bidaiaren azken jomuga izan ziren Brasilgo pantanalak bixitatu aurretik.

Errekek gainez egiten dutenean urez estalita gelditzen diren lur eremu zabalak dira pantanalak, eta bizitza izugarria dago bertan. Jacare (caiman) jaguar, tximu, anaconda eta milaka txori



Machu Pichu, Inken tenplu ezkutua, Boliviako oihanean galduta.

espezieren bizileku izan zen Rio de Janeiroa joan aurretiko azken etapa. Sei hilabeteren ondoren, Eskoriatzara etorri zen berriz, hamaika momentu latz eta goxo bizi, eta bere lagunek oparitutako egunerokoa argazki, lore, mapa eta hitz bihurtutako pentsamenduz beteta zituela.



Brasilgo pantanaleko nekazariak harrapatutako sugetzar bat erakusten. Ferminen zaletasun handienak animalia eta landareak izanik, bidai honetan aurkitu zuen espezie aberastasunarekin txundituta etorri zen.


Garizumatan karapaixua oparitzeko ohiturarik ba al duzu?

Aste Santuaren etorrerarekin batera, ohitura zahar bati eusten diogu Eskoriatza eta inguruko herrietan; nahiz eta gure baserri askotan labesua egiteko ohitura galdu den, oraindik ere, garizumatan karapaixua oparitzeko ohitura ez da galdu. Kalera irten eta tradizio honi buruz galdetu dugu.



Ines Alegria
(Jubilatua)

Nire besuetakuak jada nagusiak dira eta haiei ez ziet oparitzen, baina, egin egiten dut, lobentzat, gustora hartzen dute eta. Gainera, eutsi behar zaion tradizioa dela uste dut.



Jose Diaz de Gereñu
(jubilatua)

Bueno, gure ilobari ekartzen dotzie. Betikua, baserriko ogiarekin egindakoa oparitzen zaio.



Martina Isasisasmendi
(Jubilatua)

Bai, ilobari oparitzen diot eta ilusio handia egiten dio. karapaixuak hiru arrautza eta txorixua izaten ditu.



Patxi Barandiaran
(Jubilatua)

Bai, lobari oparitzen diot. Ilusio handia egiten dio. Baserriko ogiarekin egindako karapaixua oparitzen dut, barruan txorixua eta arrautza egosiak dituen.



Irigartze Diaz de Gereñu
(Langilea)

Nik ez, baina ohitura hori oso ondo dagoela uste dut. Umeei ilusio handia egiten die.



Itziar Garaiurrebaso eta Juan Carlos Kortazar
(Biak langileak)

Bai, gure besuetakoei oparitzen diegu karapaixua. Tradizio polita da eta, gainera, umeei ilusio handia egiten die. Guk bi eratakoak oparitzen dizkiegu, baserriko ogiaz egiten dena, barruan txorixua eta arrautzaegosiak eramaten dituen, edo esnez egindako boilozkoa.

KORRIKA 11

Korrika arrakastatsua izan dugu aurtengoa ere. Antolaketan talde ugari parte hartu du eta nahiz eta kilometro salmentan arazoren bat edo beste egon den, azkenean oso ondo atera dela esan behar.



KORRIKA KULTURALA

Aurten gainera, KORRIKA bera iritsi baino lehen beste ekintza batzuk ere antolatu dira herrietan zehar KORRIKA KULTURALAren barruan, eta Eskoriatzan HIKAtaldearen azken lana ikusi ahal izan genuen. Kafe antzerki moduan pentsatutako lanak eta Kokotx tabernan antzeztu zuten. Horrelako ekintzetara joateko Eskoriatzan izaten dugu "zaletasuna" ikusirik oso pozik agertu ziren antolatzaileak, nahiz eta oso puntualak ez izan taberna bete egin eizen eta bai ikuslegoa zein HIKAtaldekoak eta tabernariak ere gustora bukatu omen zuten.

KORRIKA TXIKIA

Martxoaren 24ean Korrika txikia egin zen ikastetxeek antolatuta. Almen eta Luis Ezeizako gaztetxoek goizeko hamaiketan euren korrika antolatu zuten Almeneko gurutzetik Eskoriatzako plazaraino. Bertara heldutakoan txistorra jana zeukaten

prest indarberritzeko. Arratsaldez berriz txotxongiloak egon ziren eta KORRIKako materiala saltzen ere egon ziren.



AFARIA ETA KORRIKA

Gabean afaria egin zen KORRIKari harrera egin aurretik gorputzak berotzeko. Afarian 60 bat lagun egon ginen, unibertsitateko gazteen presentzia

nabariarekin (izan ere eurak bultzatu zuten gehienbat ekintza hau). Batzuk gaupasa eginda eta beste batzuk lo gutxi, goizeko 5etan eman genion harrera KORRIKA 11ri eskoriatzarrok. Talde guztien artean zazpi kilometro eta erdiak egin genituen eta batzuk Gatzagatik gora jarraitzeko animoa ere eduki zuten.

Takarraran egin eta gero txokolate bero beroa itxaroten geneukan herriko plazan, eta gero batzuk ohera eta beste batzuk lanera. **HURRENGORARTE KORRIKA.**

KORRIKAn parte hartutako taldeak hauek izan dira:

Almen
Jubilatuak
Udaletxea
Amuska
Unibertsitatea
Axtroki
Jose Arana Ikastola
Gorosarri dantza taldea
Herri Batasuna



BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltea 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
Ze Barri? 943-715434
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumárraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

JAIOTZAK

99.03.01 an Mikel Maltias Riberiro
 99.03.11 an Aritz Gonzalez
 Markaide

Mendi irteerak

Apirilak 25 sagardotegira

Gaztetxoan mendi

irteerak

Apirilak 18

Orkatzategira (Urkulutik)

Maiatzak 2

AITZORROTZ eguna

BEKAK

* Luzemetraiak burutzeko gidoiak egiteko dirulaguntzak

Epea: apirilak 2.

* "Censolar"ek eguzki-energia programatzaile eta instalatzaile ikastaroa egin ahal izateko dirulaguntza deialdia egin du.

Epea: apirilak 30.

* **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak urteroko dirulaguntzak deitu ditu:**

- Zaharberrikuntza eta azterketa kimikoko **praktikak egiteko bekak** Artelekuko pintura eta eskultura zaharberrikutzako lantegian.

Epea: martxoak 12.

- **Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza** arloetan espezializazio lanak burutzeko **bekak:**

Epea: maiatzak 14.

- **Arte plastiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa** arloetako arte sorkuntza eta promozioa bultzatzeko **laguntzak.**

Epea: maiatzak 14.

LAN ESKAINTZAK

* Iruñako Udalerako **itzultzaile postua.**

Epea: apirilak 6.

* Kursaal Elkargunean lan egiteko hainbat postu bete nahi da: kongresuetarako laguntza (**azafatak, harreragileak, sarrera saltzaileak...**), kongresuetarako laguntza teknikoa (**soinu, argi eta ikus-entzunezko teknikaria, itzulpengintza...**) eta espektakuluetarako laguntza teknikoa (eskenatokien aditua, **soinu, argi eta ikus-entzunezko teknikaria...**).

Epea: apirilak 8.

* Iruñako Udalerako, aukera berdintasuneko **teknikari aholkularia.**

Epea: apirilak 9.

*Egun erdiz jarduteko **TELEFONISTA BAT KONTRATATU NAHI DU ESKORIATZAKO UDALAK.** Lanpostu hau %33 baino gehiagoko **helbarritasuna duten pertsoneri zuzenduta dago.**


Epea: apirilak 6. Informazio gehiago udaletxean.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazio-deialdia: apirilaren 17an Donostian

DISKA GOMENDIOA

AHUEN SINFONIKOA - BENITO LERTXUNDI

Benito Lertxundi abeslari oriotarraren azken diskoa gomendatu nahi nizueke oraingoan. Askorentzat ezaguna izango da Benito Lertxundik "Euskadiko Orkestra Sinfonikoa" rekin atera duen disko hau, baina diskoak zinez merezi du Ze Barri?ko txoko honetan gomendatua izateak.



Hamaika abesti biltzen ditu bertan lehendik ere aski ezagunak dira gehienak: Oi Zuberoa, Baldorba, Bizkia maite, Oi lur oi lur... makina bat aldiz entzun eta barneraino sartu izan zaizkigunak. Oraingoan ordea, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren itzalean Benitoren ahots sakonak are erakargarriago egin ditu abestiak. Armonia indartsu baina era berean gozagarriaren oreka lortu dela uste dut. Arrazoi hauengatik maisu lan hau entzun dezazuen gonbidatzen zaituztet.



Lehenengo jaunartzea, 1975 urtekoa da eta Eskoriatzako elizan ateratakoa.
Ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Mari Cruz Oyanguren (katekista), Ane Miren Eraña, Aitor Uribe-etxeberria,, Igor Armendariz, Jasone Barandiaran, Ainhoa Diaz de gereñu, Jon Agiriano, Jasone Diaz de gereñu, Josu Zapatei, Karmen Zabaleta (katekista).

Lorea edo Igone Larrañaga, Idoia Armendariz, Josu Armendariz, Josu Azkarate, Josu "Suso", Josu Uribe-etxeberria, Lorea edo Igone Larrañaga, Jon Gabilondo.

Parrokia Antonio.



VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

Aldibin *berri* ugari dituzu



S/V40 TDI



Hyundai Sonata *berria*



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO

Auto Suecia



Almovil, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.